



OÑATI
dabilen herria



PERTSONA LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK 2023

Oinarriak 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartuta

PERTSONA LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

ERAKUNDE ONURADUNAK

- Oñatiko enpresak, banakako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.
- Baldintzak:
 - ✓ 50 langile baino gutxiago izatea.
 - ✓ Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan (JEZ) Oñatin alta emanda egotea.
 - ✓ Ogasunean eta Gizarte Segurantzari ordainketak egunean.
 - ✓ Dirulaguntza publikoak eskuratzeko zigorrik edo debekurik ez izatea.

KONTRATATUTAKO PERTSONEN BALDINTZAK

- Oñatin erroldatuta.
- Langabezia egoeran eta Lanbiden izena emanda.
- Enpresaren jabetzarekin edota zuzendaritzarekin ahaidetasunik ez izatea.

KONTRATUEN BALDINTZAK

- Mugagabeak edo gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten aldi baterakoak.
- %50eko jardunaldia gutxienez.
- Enplegu sorrera garbia.
- Kontratuen hasiera data 2022ko uztailaren 1a eta 2023ko ekainaren 30a bitartean.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MUGAK

- Kontratu mugagabeak, jardunaldi osoan: 1.300€
- Aldi baterako kontratuak 6 hilabeteko iraupenarekin, jardunaldi osoan: 1.000€
- 300€ko gehikuntza kontratutako pertsona emakumezkoa bada.
Denbora partzialeko kontratuetan dirulaguntza jardunaldiaren proportzioan.
- %30eko gehikuntzak:
 - ✓ Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI).
 - ✓ <35 urte.
 - ✓ >55 urte.
 - ✓ Epe luzeko langabeak.
- Enpresako eta deialdiko muga 3.500€

DIRULAGUNTZEN ESKAERA

- Eskaera aurkezteko epea: 2023ko azaroak 30.
- Dokumentazioa:

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- ✓ Eskaera-orria (E040)
- ✓ Erantzukizunpeko adierazpena (E039 - 1. eranskina)
- ✓ Langile kopurua handitu izanaren agiria (bataz besteko langile kopuruaren agiria Gizarte Segurantzak emana, diruz laguntzea nahi diren kontratuak hasi aurreko 6 hileko tarteari dagokiona).
- ✓ Dirulaguntza eskatzen deneko pertsonaren lan kontratua.
- ✓ Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK (uko egiten ez bada)

- ✓ Enpresako ordezkari legalaren NAN edo nortasun agiria.
- ✓ Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- ✓ Kontraturiko langilearen Gizarte Segurantzako altaren ziurtagiria.
- ✓ Dagokion kasuan, DSBE-ren titular hartzailea dela ziurtatzen duen agiria.
- ✓ Dagokion kasuan, kontraturiko pertsona langabezian egoeran egondako denbora egiaztatzen duen ziurtagiria.

NON ESKATZEN DA?

- Aurrez aurre: Udaletxea Foruen Enparantza 1, 20560 OÑATI
Ordutegia: 7:30-15:30
- Internet bidez: Hasi online tramitazioa zerbitzu telematikoetan
(<https://www.oñati.eus>)
- Posta arrunta: Foruen Enparantza 1, 20560 OÑATI
- Informazio gehiago: 943003198 / enplegu@onati.eus



OÑATI
dabilen herria